

BIZIKIDETZA ARAUTEGIA

Bizikidetza eta antolakuntza arauak, irakaskuntza erkidegoari dagokion errespetua, babesa eta bizikidetzaren bermea, halaber, A.J.A honetan aipatutako eskubideen erabilera arduratsua eta betebeharren betetzea izango dute helburu. Arauok izaera demokratikoa behar dute izan, eskubideei errespetua eta betebeharren betetzea Musika Eskolako komunitate osoaren konpromesua izateko moduan.

1. BIZIKIDETZA-PLANA

Eskola Kontseiluak onartu beharko du Zuzendaritzak landutako Bizikidetza plana. Eskola Kontseilua izango da bizikidetza jarraipen-batzordea, eta lehentasunezko helburua gatazken prebentzioa izango da. Konponbideak, abenduaren 2aren 201/2008 Dekretuan oinarrituta egongo dira.

Ikaslen baten eskubideen aurkako jokaeraren bat ikusten duen irakasleak, berehala tartean sartuko da erantzulea ohartaraziz eta Ikasketaburuarengana bidaliko du.

2. IRAKASKUNTZA ERKIDEGOARI DAGOKION ARAUTEGI OROKORRA

Bizikidetza-plan honetan, irakaskuntza erkidego osoaren betebeharrak jasoko dira:

- Arautegi honetan xedatutakoa bete eta errespetatu.
- Ikastegiko instalazioak eta materiala era egokian erabili eta zaindu.
- Hezibide oneko hiztegia erabili.
- Irakasleentzako bereziki diren gune pribatuetan ez sartzea, halaber, ezta eskileretan eta igarotze tokietan geratu ere.
- Soilik Zuzendaritzaren oneritziarekin, jarri edo kendu daitezke kartelak edo iragarkiak ikastegiko edozein tokitan. Salbuespen bezala, irakaslegoaren entzunaldietako kartelak izango dira. Sindikatuen eta lan aferen kartelak, soilik dagozkien tokian jarriko dira.

Urtean behin bizikidetza batzordeak arauak berraztertu eta modifikatuko ditu, beti ere Eskola Kontseiluaren oneritziarekin.

201/2008ko Dekretuaren arabera, soilik bizikidetzarako desegokiak, kontrakoak edo eta oso kaltegarriak diren jokaerak zuzendu daitezke, lehenbailehen egin beharko delarik.

3. JOKAERA DESEGOKIAK

210/2008ko abenduaren 2 ko Dekretuak, hurrengo jokaerak hartzen ditu desegokitzen:

- a. Justifikatu gabeko puntualitate hutsak
- b. Justifikatu gabeko asistentzia hutsak.
- c. Ikastegiko instalazio eta materialen, edo eta irakaskuntza erkidegoko beste edozein kideren baten gela, materialen eta instrumentuen hondatzea, zabarkeriaren ondorioz izan bada.
- d. Irakaslegoari adierazitako desobedientzia, gutxiespen, irain, berariazko diziiplina eza, halaber, ikastegiko irakaslegoaren edo gainontzeko pertsonalaren aginduei jaramonik ez egitea.
- e. Irakaskuntza erkidegoaren aurkako jarrera, jokaera edo eta hitzgordinak.
- f. Ikastegira, ekipo, materiale, arropa edo eta ikastegiak debekatutako aparatuak eramatea.
- g. Ikastegiko edozein motako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa nahiz telefonikoa edo informatikoa, ...) baimenik gabe erabiltzea.
- h. Irakaslegoari gezur edo informazio faltsua ematea, irakaskuntza erkidegoko kiden bati kalte eragiten ez dionean.
- i. Kalifikazioak helburu dituen azterketa, froga edo ariketen kopiatzea edo kopia erraztea; halaber, baimendubako materiale edo aparatuen erabilpena.
- j. Baimenik gabeko pertsonei sarrera erraztea edo beraiekin sartzea, bizikidetza arautegiaren edo ikastegiko araudiaren aurka doanean.
- k. Inoren gauzen baimenbako erabilpena.
- l. Betebehar propioen beste edozein hauste, irakaskuntza erkidegoaren gainontzeko kideen eskubideen aritzearen oztopo, hauste, edo eragozpen izan ezean, bizikidetzarako kontrakoak edo oso larritzat jotzen diren jokabideak ez direnean.

4. JOKAERA DESEGOKIEN ZUZENKETA.

Jokaera desagokiak irakasleek zuzenduko dituzte, hurrengo neurriren bat edo batzuen bidez:

- a. Jokaera desagokiaren eta beren ondorioen hausnarketa.
- b. Kaltetuak gerta daitezkeen pertsonen aurrean, jokaera desagokiaren onarpena.
- c. Jokaera egokien ikaste eta barneratze jarraibideen ekintzen burutzea.
- d. Jokaera desagokiarekin erlazionatutako lanen baten burutzea.
- e. Zuzendaria edo Ikasketa buruaren aurrean aurkezteko agindua.

5. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKAERAK

210/2008ko abenduaren 2 ko Dekretuak, hurrengo jokaerak bizikidetzaren aurkakotzat jotzen ditu:

- a. Ikastegiko irakasle zein langileei mespretxuz, mehatxuz edo adierazpen iraingarriaz edo eta diziiplina ezaz eginiko desobedentzia jokaerak.
- b. Beste ikaskideei edo irakaskuntza erkidegoko edozein kideei mehatxu adierazpenez edo hitz gordinez zuzentzea, ikastegiko bizikidetza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartzen ez denean, halaber, edozein gestu edo jarrera argiro eraso ahalegin edo eraso mehatxu errealtzat jo daitezkeenean.
- c. Azterketa eredu edo erantzunen kopiak lapurtu, zabaldu, saldu edoerosi.
- d. Boletinak edo beste edozein dokumentu edo guraso edo legezko ordezkariarentzako abisuak aldatzea, halaber, adin gabeko ikasleen kasuan, hartzaileari ez aurkeztea edo hauen erantzunak aldatzea.
- e. Era desagokiaz erabiltzearen gelak, altzari, materiale edo ikastegiko dokumentuak hondatzea, edo irakaskuntza erkidegoaren hondasunak kaltetzea, ikastegiko bizikidetza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartzen ez denean.
- f. Jakitun izanik, Eskola Kontseiluak adostutako hitzarmenen ez betetzea.
- g. Besten ohore, intimitate eta norbere irudi eskubideen errespetu eza, guraso, legezko ordezkari, ikasle edo irakasleen baimenik gabeko grabaketak eginez.
- h. Indarkeriarik gabe beste pertsona bati zeregin bat egiteko eskubidea galarazi, edo zeozer bere borondatez kontra egitera behartu.
- i. Irakaskuntza erkidegoko kiden bati kalte fisikoren bat sortu diezaiokeen objektuak zuhurtziagabeki erabili.
- j. Gezurra esan, informazio faltsua eman edo irakaslegoari berezko identitatea ezkutatu, ondorioz beste edozein irakaskuntza erkidegoko kiden bat kaltetuta gertatu daitekenean.

- k. Beste edozein jokaera edo ekintza, jaiotze, adin, arraza, sexu, egoera zibila, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun egoera, kultura, erlijio, sineste, ideologia, edo beste edozein ekonomi edo klasearteko egoera edo baldintza pertsonalagatik sortutako diskriminazioa, ikastegiko bizikidetza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartzen ez denean.
- l. Desegokitzat jo diren aipatutako jokaera edo ekintzen errepikapena hiru aldiz ebaluaketa berean, eta aurreko bietan zuzendu direnean, eta adingabekoen kasuan guraso edo legezko ordezkariari abisatu zaienean.
- m. Ikasleen betebeharren beteeza suposatzen duen beste edozein jokaera, beti ere irakaskuntza erkidegoaren gainontzeko kideen eskubideen edo eta betebeharren aritzea nolabait oztopatzen duenean, eta ikastegiko bizikidetza larriki kaltetu dezakeen jokaeratzat hartzen ez denean.

6. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKAEREN ZUZENKETA

Bizikidetzaren aurkako jokaera desegokiak zuzentzeko, zuzendariak hurrengo neurrien bat edo batzuk ezarri ditzake:

- a. Bizikidetzaren aurkako jokaera desegokiaren eta beraren ondorioen hausnarketa, eta orientabideak haren berbideratzerako.
- b. Idatzizko ohartarazpena.
- c. Guraso edo legezko ordezkarien aurreko ohartarazpena, adingabekoenkasuan.
- d. Ikaslearen talde edo gela aldaketa, denbora baterako edo behin betiko.
- e. Heziketa-lan, edo kalte materiala konpontzeko ekintzak burutu, edo egokia balitz, ikastegiko bizikidetzaren aurkako jokaeren ekintzen hobekuntza eta garapena landu, gehienez jota, hiru hilabeteko epean.
- f. Adingabetuen kasuan, guraso edo legezko ordezkariekin batzartu arte, ikasgai batetara edo batzuetara edo ikastegira joateko eskubidearen galera, hiru egun gehienez.
- g. Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko eskubidearen galera, dagokion ebaluaketaren bukaerarte.
- h. Ikastegiz kanpo zertuko diren jardun osagarrietan parte hartzeko eskubidearen galera hiru hilabetez gehienez.

7. BIZIKIDETZA LARRIKI KALTETZEN DUTEN JOKAERAK

210/2008ko abenduaren 2 ko Dekretuak jokaera hauek jasotzen ditu:

- a. Mendekotasun edo diziiplina ezaz burututako ekintzak, baita Ikastegiko Gobernu Organoek edo eta irakasleek ezarritako neurri zuzentzaileei uko egitea; halaber, irakaskuntza erkidegoko edozein kideren kontra larriki iraingarritzat jotzen diren adierazpenak, bai hitzez, idatziz edo ikus-entzunezko zein baliabide informatikoen bidez.
- b. Jaiotze, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko,

osasun egoera, kultura, erlijio, sineste, ideologia, edo beste edozein ekonomi edo klasearteko egoera edo baldintza pertsonalagatik adierazitako diskriminazioa azaltzen dituzten hitz gordinak.

- c. 4/2005eko otsailaren 18ko Legeaz eta “protokoloa, lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko denarekin bat: sexu arrazoiengatik pertsonaren aurka zuzendutako edozein jokaera, bai ahozkoa, baita fisikoa, pertsonaren duintasunari eraso egitea duenean helburu, edo eta honen inguruan giro iraingarri, humilagarri, mingarri eta etsaitasunezkoa sortaraztea.
- d. Irakaskuntza erkidegoko edozein kideren aurka burututako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e. Irakaskuntza erkidegoko kideen segurtasun eta osasunerako oso kaltegarriak diren jokaeren zirikatze ekintzak, beste zenbaiten artean, tabakoa, alkohola eta drogak esate baterako.
- f. Bizikidetzarako kontrakoak diren jokaera guztiak, asmo txarrez eta nahita egindako publizitatea medio direla, ahoz, idatziz zein ikus-entzunezko edo informatiko baliabideen bidez, halaber, berdinen arteko tratatu txarrezko egoera bat sortarazten duenean.
- g. Lesio larriak sortu ditzakeen istilu eta eraso-jarreretan parte hartuedo hoiek eragin.
- h. Bakarka nahiz taldean, ikastegiko instalazioetan zein bere ondasunetan edo eta haren erkidegoa osatzen duen edozein kideei kalteak nahita eragin.
- i. Besteon ohore, intimitate eta berezko irudi eskubideen errespetueza, guraso, legezko ordezkari, ikasle edo irakasleek alde aurretik adierazitako baimenik gabeko grabaketak eginez.
- j. Identitate ordezpene irakaskuntza-bizitzan.
- k. Dokumentu edo eskola erregistroa kaltetu edo aldatu, idatziz edo informatikoki, halaber, eskola agiriak ezkutatu edo baimenik gabe desagertarazi.
- l. Hutsegite penala edo delituan erori daitekeen konzienteki burututako edozein ekintza.
- m. Bizikidetzarautegi honetako 5. puntuaren aurkako edozein jokaeraren errepikatzea, “i”atalekoa izan ezik, hiru aldiz gehiengoz ikasturte berean, beti ere aurreko bi aldietan zuzendu direnean, eta gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi zaienean.
- n. Irakaskuntza erkidegoko edozein kideren aurka doan beste edozein jokaera edo ekintza, beraien betebeharren haustea suposatzen duenean, osasuna, osotasuna, adierazpen, partaidetza, eta bilkura askatasuna, berizketa eza, ohore, intimitate eta norberaren irudi eskubideen kontra doanean.


8. BIZIKIDETZA LARRIKI KALTETZEN DUTEN JOKAEREN ZUZENKETA

Bizikidetza larriki kaltetzen duten jokaerak zuzentzeko, zuzendariak, bizikidetzaren aurkako jokaera desegokiaren zuzenketa zerrendako neurrien bat edo batzuek gain, hurrengoak ere ezar ditzake:

- a. Eskolaz kanpoko ordutegian heziketa-lanak burutzea, edo ikastegiko jardunen hobekuntza eta garapena laguntzera bideratutako zereginak eginarazi, edo egokitzea jo ezker, kalte materialen konponketari ekin, gehienez sei hilabeteko epean.
- b. Ikasgai batetara edo zenbaitetara edo eta bertara ikastegira asistitzeko eskubidea eten, hirutik hogeit egunerako epealdian, etenbako ebaluaketa galdu gabe, beti ere betebehar edo eginkizun jakinak burutuz, ikastegiak espreski izendatutako irakasleen kontrolpean.
- c. Eskolaz kanpoko jardunetan, zein eskolaz kanpoko jardura osagarrietan parte hartzeko eskubidearen etena, ikasturtearen bukaerara iritsi daitekeen epealdian.

Bizikidetzarako planean, zuzenketa neurri ezberdinen ezarpen epeak eta prozedurak zehaztuko dira.

Ondarroan, 2021eko uztailaren 16a



Zuzendaria

Zuzendaria

9.

